BIZITEGI ERAIKINA — TXURRUKA 4

D MAILA



Egilea eta data: Jose de Goicoa; 1883

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, eta 1923ko jasodura bat atzeraemana. Harlanduzko fatxada behe oinean (oso eraldatua 1919az geroztik), eta goi oinetan zeramikaz estalia, baoen azpadurak nabarmenduta. Goi oinetako bao zentralen parean, 1923ko zurezko begiratokiak ditu. Behe oineko lokalari zegokion baoa jatorriz bikoitza zen. Proiektu komuna Txurruka 6 eta 8rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (5. goi oina, atzeraemana).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokien tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzearekin lotzen diren irizpideak – behe oineko baoen eta fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.